**La esperanza como eje de la campaña de turismo**

- "Euskadi te espera, volveremos a vernos" es la idea sobre la que orbita la campaña de Turismo, que busca dar apoyo e insuflar esperanza al sector en la fase de vuelta a la normalidad.

- A la campaña la seguirán otras más adelante, centradas en los primeros momentos en la oferta turística interna y nacional.

El Departamento de Turismo, Comercio y Consumo del Gobierno ha desarrollado una campaña de comunicación, principalmente audiovisual, de carácter interno y nacional para apoyar al sector turístico en la fase de vuelta a la normalidad.

Los vídeos muestran los recursos de Euskadi, playas, montes, turismo urbano, gastronomía y hostelería, recorrida de nuevo por visitantes que descubren o redescubren el territorio.

La esperanza se describe como ese sentimiento, ese paisaje, una piel, un sabor, un grito, que es libre y no puede pararse y nos llevará a reencontrarnos de nuevo. "Lo que ahora perdemos nos llevará de nuevo a la orilla" evocan las imágenes que combinan la rica oferta de Euskadi donde poder hacer deportes en el mar, recorrer las montañas y bosques, las calles y comercios de pueblos y ciudades, los eventos culturales, y como no, la más variada gastronomía.

"El inusual invierno pasará" nos recuerda el vídeo para acabar con el mensaje de "Euskadi te espera. Volveremos a vernos". Con esta idea el Departamento quiere mostrar todo su apoyo y alentar al sector turístico, tan castigado por la crisis de COVID19, para destacar que Euskadi es y seguirá siendo un destino para muchas personas que volverán a visitarnos.

La campaña se reforzará en redes sociales con los hastags #EuskadiTurismo #volveremosavernos

**Itxaropena da turismo-kanpainaren ardatza**

- “Euskadi zain duzu, egongo gara berriz” da Turismo Sailaren kanpainak ardatz hartu duen ideia, eta itxaropena hauspotu nahi dio sektoreari normaltasunera itzultzeko fasean.

- Kanpaina honen ondotik beste batzuk etorriko dira aurrerago, hasieran barneko zein estatuko turismo-eskaintzari erreparatuz.

Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak komunikazio-kanpaina bat garatu du, batez ere ikus-entzunezkoa, barnerako zein estaturako, turismo-sektoreari normaltasunera itzultzeko fasean laguntzeko.

Bideoek Euskadiko baliabideak erakusten dituzte: hondartzak, mendiak, hiri barneko turismoa, gastronomia eta ostalaritza. Bisitariek berriz bisitatzen dute Euskadi, lurraldea deskubrituz eta berriz miretsiz.

Itxaropenaz ematen den azalpena sentimendu bat da, paisaia, azala, zapore bat, oihu bat, askea eta geldiezina, berriz elkartzera eramango gaituena. “Orain galdu dugun horrek berriz eramango gaitu itsasertzera”, horixe ematen dute aditzera irudiek, eta Euskadiko eskaintza aberatsa uztartzen dute, hala nola kirola egiteko aukera, mendi eta basoetan zehar ibiltzea, herrietako zein hirietako saltoki eta kaleetan, kultura ekitaldiak eta, nola ez, askotariko gastronomia.

“Joango da ezohiko negu hau”, ekartzen digu gogora bideoak, bukaeran mezu hauxe igorriz: “Euskadi zain duzu. Egongo gara berriz”. Ideia horri helduz, Sailak babes osoa agertu nahi dio turismo-sektoreari, eta hura hauspotu, COVID-19aren krisiak gogor zigortu baitu, nabarmenduz Euskadi pertsona askoren destinoa dela eta izango dela, eta berriz bisitatuko gaituztela.

Kanpaina sare sozialetan sendotuko da, #EuskadiTurismo eta #volveremosavernos traoletan.